

INDUSTRIA MINISTRO BRITAINIARRAK MAILEGU BAT JASO ZUEN ALTXOR MINISTRORDEAREN ESKUTIK

Blairren gobernuko bi kidek dimisioa eman behar izan dute

Peter Mandelson Industria eta Merkataritza ministro britainiarrak dimititu egin du, Geoffrey Robinson Altxor ministrordeak mailegu bat eman diola zabaldu eta gero. Robinsonek ere kargua utzi du.

Agentziak / Londres

PETER MANDELSON Industria eta Merkataritza ministro britainiarrak kargua utzi zuen atzo, Gobernuari «mina» egin diola arrazoituta. Izan ere, Mandelson orain bi urte Geoffrey Robinson Altxor ministrordearen eskutik jaso zuen 373.000 libramento (596.000 dolar) maileguak polemika sortu du, behin ezagutzera eman eta gero.

Mandelson Blairren gertuko laguntzailea da, eta, askoren ustetan, Laborismo Berriaren egileetako bat.

Mandelsonek gutun bat igorri zion joan den ostegunean Tony Blair lehen ministroari. Hor aitortu egin zuen maileguaren berri jakinarazi behar zioela. Atzo, berriz, telefonoz hitz egin zuten biek, eta ministroak dimititu egin behar zuela adostu zuten.

Industria eta Merkataritza ministroak duela bi urte hartu zuen mailegua. Londresko Nottingham Gate auzoan etxebizitza bat erosi nahi zuen diruarekin, eta, mailegua jasotzeaz gain, banku batek 150.000 libramento hipoteka eman zion. Ez baten ez besteren berri ez zion inori jakinarazi Mandelsonen.

The Guardian egunkaria, ordea, mailegua ikertzen ari zela jakin zuen ministroak. Horregatik, guztia azaldu zion Blairri joan den ostegunean.

Industria eta Merkataritza ministroak behin eta berriz ukatu du interes-gatazkarik egon dela Robinsonen eskutik dirua jasotzean. Prentsak, ordea, gal-



Peter Mandelson
Industria eta Merkataritza ministro ohia,
Alderdi Laboristaren Londresko bulegotik irten eta gero.
MICHAEL CRABTREE
EPA

degin du ea Mandelson finantza erantzukizunak betetzeko gai den, hilean 2.000 libra baino gehixeago poltsikoratuta.

Mandelsonek dimititu eta ordu gutxira, Altxor ministrorde kargua utzi zuen Robinsonek. Hark ere gutun bat igorri zion lehen ministroari dimisioaren berri emanez, eta kargua uztearen «errua» leporatu zion bere aurka «azken hamabi hilabeteetan

dagoen kanpaina politiko zikinarri».

Industria Ministerioa Robinson ikertzen ari da • Kontua da Robinsonengan begiak jarrita dituela Industria eta Merkataritza Ministerioak; izan ere, Robinsonek Maxwell egunkari inperioari lotzen dizkioten hainbat negozio ditu, eta susmagarriak zaizkio Ministerioari.

Downing Streetek, lehen ministro britainiarraren egoitzak, Stephen Bayers Altxor ministroa izendatu zuen Industria eta Merkataritza ministro.

Oposizioako Alderdi Kontserbadoreak Mandelson ikertzea eskatu zuen. Oposizioaren hitzetan, zehaztu egin behar da Mandelsonen Britainia Building Societyri hipoteka eskatzean jakinarazi ote zion mailegu bat ere jaso zuela.

soslaia

PETER MANDELSON

«Gorentasun betilunaren» erorrera

Industria eta Merkataritza ministroa «gorentasun goibel» gisa eta Tony Blair lehen ministroaren gobernuaren oinarri sendoenekotzat azaltzen zuten askok Peter Mandelson. Baina azalpen horrek ez du eragotzi, politikoki, goitik behera erortzea.

Gobernu britainiarrean Mandelsonen zuten garrantziaren adierazgarri dira Blairrek berak haren dimisioaren ondoren adierazitakoak. Blairrek adierazi zuen Mandelson gabe ez litzatekeela existituko Laborismo Berria.

Hala deitzen zaio Alderdi Laborista britainiarrak 1997ko maiatzean agintea hartzeko egin zuen erreformari.

Mandelson izan zen Laborismo Berriaren ideologo garrantzitsuenetakoa. Berri zor zaio alderdiak zentro-ekzerrera, klase ertainera hurbilduz, egin zuen norabide aldaketa.

80ko hamarkadaz geroztik elkarrekin lan egin dute Mandelson eta Blairrek. Adiskide onak ere badira. Baina Alderdi Laborista Gobernura heldu zenetik Mandelsonen alboan izan ditu eskandalua eta esan mesak. Prentsak Mandelsonengana zuzendu zituen geizuguztiak 1997ko maiatzean, laboristek agintea hartzean, karterarik gabeko ministro izendatu zutenean. Mandelson anbizioa ere bazen, eta pozik hartu zuen Industria eta Merkataritza Ministerioa joan den uztailaren 27an.

Prentsak Mandelsoni leporatu zion Gobernuaren informazioak laboristen alde egitea ahalik eta gehien; eta urriaren ezkutuko homosexual izatearen egotzi zioten kazetari batek eta diputatu ohi batek. X

GASTEIZKO GAUA

M
A
R
T
X
A

KABIER
TABERNA



Kutxi, 23

GASTEIZ

JATETXEA
LA RIOJANA
TABERNA

Kutxileria, 33



ARBETZA
taberna

Kutxi k/, 58

GAKO

TABERNA

Santo Domingo, 13